

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
GORKA AZKARATE

Itsasu (Lapurdi)

Gailurretan hegan

Itsasuko eliza ezagunaren serreran Euskal Herriaren eskubideak aldarrikatzen dituen monolitoa dago. Izan ere, 1963ko Aberri Egunean Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zuten inguru horretan. Baina bada gehiago, askoz gehiago: Itsasuk Lapurdiko mendigune erakargarrietakoa ezkututzen du Errolanen igarobide sonatutik harago...

Larrun mendia bada Lapurdiko mendirik ezagunena, Artzamendi (926 m) dugu, metro gutxigatik, garaiena. Larrun kostaldetik gertu zutitzen bada, Artzamendi herrialde honen eta Nafarroa Beherearen arteko muga dago kokaturik. Mendi lerdena da oso Artzamendi, urrunetik ezagutzen dena; tamalez, bere lerdentasunagatik ez ezik bere gailurra estaltzen duten antena eta radar andanagatik ezaguna da halaber. Edozein kasutan, Lapurdiko barnealdearen gaineko talaia paregabea da. Itsasuko Laxia auzotik abiatzen den porlanezko pistari jarraituz gailurreraino igo daitekeen arren, ibilbide basatixeagoa aukeratuko dugu Artzamendiko tontorrera heltzeko.

Txangoa, beraz, Errobi ibai ederraren ertzean kokatzen den Laxia auzoan hasiko dugu, Errolanen pasabidea edo Atekagaitz izenez ezaguna den eta

erdian zulo ikusgarria duen harritzarretetik gertu. Pertsona bat igarotzeko adinakoa da, gutxi gorabehera, harria ebakitzen duen zuloa. Kondairaren arabera, Karlomagno ezpatakada batez egin zuen zulo hori, bera eta bere gizonak bertatik igaro zitezten. Errealitatea, baina, beste bat da: Laxiako baserritarrek egin omen zuten zuloa, Itsasurako bidean oztopo saihestezina baitzen bide erdian paraturiko harri erraldoia.

Lapurdiko gailurra


Parajeaz gozatzeko ia denborarik gabe, bideak goranzko joera hartuko du berehala; ibilbideko lehenengo gailurra izango den Artzamendira igotzeko, ia 900 metroko gorabehera gainditu beharko dugu, haranaren sakonean kokatzen den Laxia auzotik abiatu garelako kontuan hartuz. Aldapa gogo-

rrenak Maldako muinora heldu artekoak dira agian (580 m), baina hortik gora ere izerdi dezente isuriko dugu, sekula amaituko ez dela dirudien azken aldats pikoak gainditu eta gailurreko eraikinak eta, batez ere, kupula zuria ikusteko aukera izan arte. Ikuspegia paregabea da norabide guztietan: Irubelakaskoa, Gorramendi, Alkurruntz, Iparla, Baigura, Mondarrain, Larrun, Auza, Saioa... Ezin konta ahala gailur. Irubelakaskoa piramide perfektuaren forma zorrotzek erakarriko dute gehien, agian, gure arreta.

Artzamendi atzean utzi eta Mehatzeko lepora jaitsiko gara jarraian, Iguzkimendiko maldari aurre egin baino lehen. GR-10 ibilbide luzearen –Pirinioak iparraldeko isurialdetik alderik alde zeharkatzen dituen ibilbide luze-margo ikurrak jarraituz Aratxeko lepora (*col des Veaux*) gailur lerdin hau

Artzamenditik Iguzkimendira bidean. Atzean, besteak beste, Irubelakaskoa, Auza eta Gorramendi.





Mondarraineko gailurrera bidean goiko irudikoa bezalako pagadi ederrak zeharka daitezke. Lerroon gainean, Errolanen atea, edo Atekagaiz. Kondairak dio Karломagnok berak egin zuela zuloa, ezpata kolpe batez. Baina ez zen Karломagno izan, Laxiako laborariak baizik.

saihestuz iristerik izango genuke, hala nahi izanez gero. Bidarraireta Ainhoa artekoa osatzen du GR-10-ak inguruotan. Iguzkimendik (844 m) ikuspegi ederraz eskertuko digu, ordea, arnasa estutu izana. Gailurrean norabidea mendebalderantz okertu eta xenda argiegirik gabeko aldapa gogor batean behera egingo dugu, ostera GR-10 ibilbidearekin bat egin arte. Artzamendiko gailurreria utzita Mondarrainekoan sartzen ari gara, ibilbide zirkularren eratzuna ixteko ahaleginan.

Errobi eta Sarrakaria ibaien arroen artean goititzen den mendigune berezi eta maitatua da Mondarrain; izena ematen dion gailur nagusiak (749 m) eta garaiera apalagoko Urreztik (693 m) osatzen duten gailurreriak eraitsita-

ko gaztelu baten antza izan dezake urrunetik ikusiz gero. Mondarrain gailurrean erromatar garaiko gotorlekua aztarnekin egingo du topo ibiltariak. Kondairak dienez, inguruko kobaren batean lamiek gorderiko urre pila bat dago oraindik.

Aratxeko lepoa atzean utzi, Estebanen borda inguratu eta Gorospileko lepora eramango gaituen maldatik igoko gara patxadaz. Mondarraineko aldapei aurre egin baino lehen, Gorospileko ertza zeharkatzen duen xenda ederrari jarraituz izen bereko hiru ton-tortxoak gaindituko ditugu (garaianak 702 m). Zuharreteako lepora jaitsi eta Urreztik gailurrera igoko gara lehenik, Mondarrain gertu dagoela adierazten duena. Izan ere, Urreztik gailur-

lurrean dauden monolitoek Mondarraineko gotorlekuaren antza eta paretotasun handia dute. Zenbait harriztar inguratu eta gailurrerari jarraituz, erraz helduko gara Mondarrain oinera bertara, eta ahalegin handirik egin beharrik gabe poltsikoratuko dugu gailurra.

Artzamendin gertatu moduan, ikuspegi paregabeaz gozatu ahal izango dugu hemendik ere; Irubelakaskoaren lerdentasuna orain parean dugun Artzamendik ezkatutako digu ordea. Txangoa borobiltzeko Ezkondrai muinoa gainditu, Legarreko lepoan norabidea aldatu eta atzera Laxiara jaitea baino ez zaigu geratuko, Lapurdin egin daitekeen mendi ibilbide ederenetako bati akabera emateko. ■